

Euskal Hizkuntza eta Kulturako graduako egresatuaren soslai

Gradu hau euskaraz ahoz zein idatziz bikain moldatzen diren hizkuntza adituak prestatzeko sortu da, bai eta literaturan eta kulturaren trebatuak diren profesionalak. Horrekin batera, gure testuinguruko eta globalizazioaren aldiko hizkuntza garrantzitsuenen menderakuntza lortuko da.

Helburu hori lortzeko honako gaitasunak erakutsiko ditu gradu honetako egresatuak:

- Euskara ahoz eta idatziz bikain erabiltzea (Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko C2), bai eta ingelesa eta espainiera ahoz eta idatziz bikain erabiltzea (C1). Halaber atzerriko bigarren hizkuntza bat nahiko ondo erabiltzea ahoz eta idatziz, eguneroko bizitzako egoeretan eta ikasketa arloan erraztasunez komunikatzeko moduan (A2-B1).
- Euskal hizkuntzaren mekanismo linguistikoaren ezaguera osoa erakustea, euskara zuzen erabiltzeko testuen sorkuntzan, proposamen didaktikoetan eta hizkuntza planetan.
- Euskararen normalizaziorako prozesuak planifikatzea, ingurune ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta.
- Euskal literaturako lanik garrantzitsuenen genero eta estilistika ezaugarriak identifikatzea eta deskribatzea, eta euskal literaturaren kanonean eta europar literaturaren testuinguruan kritikoki kokatzea.
- Giza Zientzien funtsa osatzen duten oinarrizko printzipioak eta hizkuntzekin duten berezko lotura ezagutzea eta ulertzea, euskal kultur ekoizpenak interpretatu eta aztertzeke orduan aplikatzeko.
- Heldu eta gazteen hizkuntz irakaskuntzaren oinarriak, ikuspegi teorikoak eta metodorik erabilienak identifikatzea eta proposamen didaktiko zehatzen diseinuan aplikatzea.
- Erabilera bereziko testuak, hala nola administraziokoak edo komunikabideetakoak, euskaratzea, itzulpengintza profesionalean erabili ohi diren oinarrizko kalitate irizpideak aplikatuz.

Berriazko gaitasun horiek erakusteaz gain, gradu honetako egresatuak hizkuntz eta kultur alorretako jardura profesionalean nahitaezko diren zeharkako gaitasun hauek ere dituzte garatuak: taldeko lan egiteko erraztasuna, zentzu etikoaren araberrako jardura eta gizarte eta kultur aniztasunaren ulermena.

Gainera, nazioartean murgiltzeko aukera ere izango du nahi duen ikasleak. Erasmus eta antzeko programetan parte hartzea aukeratzen dutenek, sei hileko bat atzerriko herrialde batean emana izango dute, bertako bizimodu akademiko eta bestelakoarekiko harreman zuzena lortuz.

Gradu honetan landuriko gaitasun horiek eremu profesionalera hurbiltzeko praktiken bitartez izango dituzte landuak ikasleak. Horri guztiari esker honako lan eremu hauetarako prestakuntza egokia eskainiko zaio egresatuari:

- Testuen sorkuntza, edizio eta itzulpengintza
- Kultur bitartekaritza eta sustapena
- Hizkuntz eta kultur irakaskuntzaren alorra
- Hizkuntz plangintza eta euskararen normalizazioaren alorra